

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Hilario Iturbe Motriko

*Soraluze,
Gipuzkoa
(1920-2014)*

Aurkibidea



Biografia



Soraluzeko Santa Ana kalean jaio zen, lau anai-arrebatatik zaharrena. Aita azkoitiarra eta ama soraluzetarra zituen. Zortzi urterekin maristen eskolan hasi zen. Euskaraz egiteagatik jasaten zituen zigor gogorrak oroitzen ditu. Hamahiru urterekin Lete lantegian hasi zen lanean, erreminta eta torlojugintzan. Gerra hasi aurretxoan kanoi lantegira joan zen lanera. Gerran ihes egin zuten Berangora eta handik Torrelavegara. Intxortako trintxerak egiten parte hartu zuen. Asturiasen atxilotu eta Avilés-eko kartzelan sartu zuten preso. Handik etxera bidali zuten eta Soraluzen ere preso egon zen. Iterga tailerra sortu zuten bera eta beste bi lagunengan artean. Eibarko GAC, BH eta Sarasketa lantegientzako egiten zuten lan Iterga tailerrean, besteak beste. Aita kantabriarra zuen Soraluzeko M^a Jesus Caminorekin ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituzten.

Zintak

SOR-074

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-10-22
- **Iraupena:** 74 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

Pasarteak

1. Maristen eskolan

- **Erref:** SOR-074/002
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:02:05. **Bukatu:** 00:04:58

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Politika » Gerra aurea » 1923-1931: Primo de Rivera
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Zortzi urterekin maristetan hasi zen eskolan. Eskolan euskaraz mintzatzeagatik gogor zigortzen zituzten. "Primo de Rivera"ren garaia zen. Errepublika etorri zenean, zigorrok antzera jarraitu zuten.

2. 13 urterekin lanera

- **Erref:** SOR-074/003
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:04:58. **Bukatu:** 00:08:37

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskolan asko jolasten zuten pilotan eta futbolekin. Eskola utzi eta 13 urterekin Lete tailerrean hasi zen lanean, armentzako eta torlojugintzarako piezak eta erremintak egiten.</p>

3. Bizkaira gerratik ihesi

- **Erref:** SOR-074/004
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:08:37. **Bukatu:** 00:10:55

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

Armagintzako tailer asko zeuden Soroluzen. Benetako pistolak erabiltzen zituzten mutikotan jolaserako. Gerra aurreko urtean, kanoi-lantegira pasatu zen, tornulari-lanetara. Gerra hasi zenean, Bizkaiko Berangora egin zuen ihes familiarekin.

4. Intxortan trintxerak egiten

- **Erref:** SOR-074/005
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:10:55. **Bukatu:** 00:13:10

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Berangotik Elgetako Intxortara joaten ziren trintxerak egitera. Nazionalak Intxortan sartu zirenean, oinez joan ziren Durangora, hegazkin bonbaketarrietatik ihesi. Berangotik Santanderrera bidali zituzten.

5. Berangotik Santanderrera

- **Erref:** SOR-074/006
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:13:10. **Bukatu:** 00:15:12

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Gerra aurretik anaia bat eta arreba bat gaixorik hil ziren. Beste bi anaiak eta gurasoak Berangotik Santanderrera bidali zituzten. Santanderko Limpias eta Torrelavegako bonbardaketak gogoan ditu Hilariok. Aita Torrelavegatik Reinosako lantegi batera joaten zen lanera. Bertan preso hartu zuten.

6. Hegazkin alemaniarrek zibilak hiltzen

- **Erref:** SOR-074/007
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:15:12. **Bukatu:** 00:17:18

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Hilario eta bere senide batzuk Asturiasko Candasen harrapatu zituzten; eta ama, berriz, arrebarekin, Torrelavegan. Candasen alemaniarren hegazkinak ikusi zituen ihesi zihoan jendea hiltzen, tartean umeak zirela.

7. Avilestik etxera bueltan

- **Erref:** SOR-074/008
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:17:18. **Bukatu:** 00:20:19

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Candastik Avilesko kartzelara eraman zituzten. Euskaldun asko egon ziren bertan preso. Lau bat hilabetez egon ziren Avilesen. Han zeudela, preso asko fusilatu zituzten. Handik libratu zituztenean, Soraluzera itzuli ziren. Bertako eskoletan sartu zituzten preso. Lanik ezin aurkitu, eta Eibarko senide baten GAC lantegira joan zen lanera Hilario.

8. Aita preso, salaketa faltsu batengatik

- **Erref:** SOR-074/009
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:20:19. **Bukatu:** 00:22:25

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

Aita EAJkoa zen. Soraluzetar batek jarritako salaketa faltsu batengatik aita

Bergarako kartzelan egon zen urtebetez. Soraluzeko sindikalista bat fusilatu egin zuten.

9. Eibarrera lanera

- **Erref:** SOR-074/010
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:22:25. **Bukatu:** 00:24:30

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:

Hilario Soraluzen preso egon zen pare bat hilabetez. Zein eskolatan egon zen preso azaltzen du. Gerra bukatu baino lehen joan zen Eibarrera lanera. GAC lantegian bizikletak eta armagintzarako piezak egiten zituzten. Orduan, lantegi guztiak aritu ziren armagintzarako lanean.

10. Soldaduskan armadarentzat lanean

- **Erref:** SOR-074/011
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:24:30. **Bukatu:** 00:26:26

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

Laburpena:

1941eko La Quinta del Biberⁿekoa izan zen Hilario. Eibar eta inguruko herrietako gazte asko, soldaduskan, armadak Deustun zuen "Automobilismo" saileko tailerretan egon zen. Soldaduska bukatu eta gero, II. Mundu Gerra zela eta, berriro mobilizatu zituzten 1941eko kintakoak.

11. Guardia Zibilen irain eta belarrondokoak

- **Erref:** SOR-074/013
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:26:48. **Bukatu:** 00:29:12

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Hilariori ez zitzaion egokitu gerrako frontean egotea. Soldaduska behin betiko bukatu eta gero, Soraluzen geratu zen, osabaren Madina tailerrean. Aita kartzelatik irten zenean, Sacia lantegian hasi zen lanean. Avilestik etorri eta gero, asteen behin Guardia Zibilaren aurrean aurkeztu behar izaten zuten. Irainak eta belarrondokoak jasotzen zituzten kuartelean.

12. Tailer berria jarri zuten Soraluzen

- **Erref:** SOR-074/014
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:29:12. **Bukatu:** 00:31:11

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Gerraostean, hiru lagun artean, "Tornillería Itega" (Iturbe, Erabide y Galarraga) tailerra jarri zuten Sorluzen, torlojugintzan jarduteko. Espainiako etorkin asko etorri zen orduan Euskal Herrira lanera. Hogei urtez jardun zuen tailerrean lanean.

13. Lanerako material kupoarekin zigortuta

- **Erref:** SOR-074/015
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:31:11. **Bukatu:** 00:34:02

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Gerraostean Hilarioren tailerrak ez zuen kupoko letoirik erosteko eskubiderik, eta gehiago ordaindu behar izaten zuten torlojuak egiteko materiala lortzeko. Makinak erosi eta kopiatu egiten zituzten tailerrean lanerako. GAC eta BH bizikleta lantegia Hilarioren tailerraren bezeroak ziren. Sarasketa lantegia ere bezeroen artean zegoen. Ekoizpen gehiena Eibarren saltzen zuten.

14. Txakur handi bat izaten zen igandeko paga

- **Erref:** SOR-074/017
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:34:22. **Bukatu:** 00:36:32

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Gerra aurretik, berak eta aitak lanean ziharduten bitartean, amak etxean josten egiten zuen. Ura bazuten etxean, eta irati txiki bat ere bai. Amak Hilario abadea izatea nahi zuen. Mutikotan, igandeko paga txakur handi bat izaten zen (pezeta baten 10 zentimo). Gerra bukatu eta urte batzuetara txikitoa txakur handi batean zegoen.

15. Ogia ardotan bustita

- **Erref:** SOR-074/018
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:36:32. **Bukatu:** 00:39:12

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

<p>Garai hartan gizonek tabernan ardoa berotu eta bertan bustitako ogia jaten zuten neguan. 13 urterekin lanean hasi zenean, tailerreko langile nagusiei begira ikasi zuen lanean. Larruzko uhalekin mugitzen ziren makinekin egiten zuten lan.</p>

16. Kanoiak Andoainen muntatzen ziren

- **Erref:** SOR-074/019
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:39:12. **Bukatu:** 00:42:21

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak

Laburpena:

Tailerreko sutezko langileak sutezko erretako barraskiloak jaten zituen. Kanoi lantegian ikasi zuen tornuan lanean. Kanoientzako piezak Sorluzen egiten ziren, baina kanoiak muntatu Andoainen. Kanoientzako piezak banan-banan egiten omen ziren.

17. Eibarko GACn lanean

- **Erref:** SOR-074/020
- **Iraupena:** 0:04:25. **Hasi:** 00:42:21. **Bukatu:** 00:46:46

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Bizikleta-fabrikak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak

Laburpena:

Kanoien zuloa nola egiten zuten azaltzen du. Eibarko GACn egon zenean, bizikletak eta armagintzarako lanak egiten ziren. Eibarren taberna batean apopilo egon zen. Trenez egiten zituen joan-etorriak.

18. 18 urtera arte ez taberna eta ez erromeria

- **Erref:** SOR-074/021
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:46:46. **Bukatu:** 00:49:00

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:

18 urtera arte ez zen tabernetan sartu. Aisialdi denbora pilotan eta futbolekin pasatzen zuen. Azkoitira sarritan joaten zen aitarekin, mendiz. 18 urte bete eta gero, Bergarako, Osintxuko eta Maltzagako erromerietara joaten hasi ziren.

19. Piston aguazila

- **Erref:** SOR-074/022
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:49:00. **Bukatu:** 00:52:15

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

<p>Lagunak kalera irteten zirenean, iluntzeko 20:30etan Piston aguazilak txilibitua jo eta etxera bidaltzen zituen. Bergaran dantza ostean neskak etxera lagundu, autobusez Osintxuraino joan eta handik Soraluzerainoko bidea oinez egiten zuten.</p>

20. Gidabaimena 18 urterekin

- **Erref:** SOR-074/023
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:52:15. **Bukatu:** 00:54:11

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

<p>Loiolan ezkondu zen, senide asko zuelako bertan. 18 urterekin Eibarren atera zuen motoa eta autoa gidatzeko baimena. Seat 600a izan zen bere lehenengo autoa.</p>

21. Perretxikotarako zaletasuna

- **Erref:** SOR-074/025
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:56:47. **Bukatu:** 00:59:32

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila

Laburpena:

Gaztetan etxean amak jartzen zituen jatorduak gogoratzen ditu. Intxaur asko batzen zuten orduan. Aitak perretxiko zaletasuna pasatu zion Hilariori.

22. Perretxikoak kalean

- **Erref:** SOR-074/026
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:59:32. **Bukatu:** 01:01:55

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila

Laburpena:

Haizea zebilenean, onddoak erortzen ziren ertzeko basotik kalera. Perretxiko asko batutakoa da Hilario lurralde ezberdinetan.

23. Gaztainak eta beste fruta batzuk

- **Erref:** SOR-074/027
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 01:01:55. **Bukatu:** 01:04:19

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Gaztainondoak nonahi zeuden garai batean. Kalera erortzen ziren gaztainok. Etxean jateko batzen zituzten. Sagarrak eta udareak plazan erosten zituzten. Ama jostun ona omen zen; etxetik kanporako ere josten zuen.

24. Soraluzeko industriaren gainbehera

- **Erref:** SOR-074/030
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 01:07:20. **Bukatu:** 01:09:20

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Kanoi lantegia Andoainera joan zen. Beste tailer batzuk Gasteizera edota Eibarrera ere joan ziren. Soraluzen terreno gutxi zegoen lantegiak eraikitzeko, eta armagintza asko gutxitu zen. Etxeetako sotoetan egon ziren tailer asko.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-06-10

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com